

20

memoria

25



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Iparraguirre, 9
48009 Bilbao
Tel. 946 569 230
info@sareensarea.eu
www.sareensarea.eu

2025eko jarduera-memoria
Sareen Sarea
Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala

Diseinua eta maketazioa: Sareen Sarea, 2026.

Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ÍNDICE

1. AURKEZPENA

NOR GARA?	4
SARE ELKARTUAK	5
IKUSPEGIA, MISIOA ETA BALIOAK	6
ANTOLAKETA	8

2. JARDUERA. ZER EGIN DUGUN 2025EAN


2.1. EHSS INDARTZEA ETA DINAMIZATZEA	10
2.2. GOBERNANTZA ETA ERAGIN PROAKTIBOA	14
2.3. HARREMANAK ETA ALIANTZAK	27
2.4. EHSS-REN POSIZIONAMENDU SOZIALA	28

3. KOMUNIKAZIOA

LANKIDETZA-HITZARMENA HERRI IRRATIAREKIN	36
SARE SOZIALETAKO ETA WEBGUNEKO ERAGINAREN TXOSTENA.....	39

4. KONTU GARBIAK

2025EKO SARRERAK ETA GASTUAK.....	40
-----------------------------------	----



NOR GARA?

Sareen Sarea Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen sareak biltzen dituen elkarte da. Sorrera formala 2014ko apirilaren 8an izan bazuen ere, hura sortzeko ideia urte batzuk lehenago sortu zen, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian.

Historian, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek sakabanatuta eta atomizatuta egon izan dira. Hori dela eta, azken urteetan presentzia, aitorpena, elkarrizketarako gaitasuna eta eragin politikoa handitzen laguntzen dieten sare eta federazioetan artikulatzeko ahalegina ikus daiteke.

Sareen Sarea hainbat alorren eta lurralderen bat egitearen adierazpide agerikoena da. Euskadiko Hirugarren Sektore guztia batzeko helburuz sortu zen, eta kohesio eta parte-hartze handiagoa dituen gizarte justuago eta solidarioago baterantz aurrerapausoak emateko helburuz. Esklusiboki alderdi ekonomikora bideratuta dagoen eta pertsoneri erreparatzen ez diren garapen-eredu baten aurrean kritikoagoa den gizarte bat du helburu, eta gizarte-eredu gizatiarrago baterantz aurrerapausoak emateko proposamenak eta alternatibak sortu nahi ditu kolaborazioaren bidez.

SARE ELKARTUAK

18 sarek osatzen dute Sareen Sarea:



Hitzarmena:
Honako hauekin
lankidetzan:



IKUSPEGIA, MISIOA ETA BALIOAK

IKUSPEGIA

Sareen Sarearen helburua hau da: gizarteak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren erreferente eta aglutinatzaile gisa ikustea, gizarte- eta politika- alorreko hainbat eragilerengan eragiteko eta haiekin hitz egiteko gai dena; gizarte justua, kohesionatua, inklusiboa, solidarioa, parekidea, parte-hartzailea eta demokratikoa eraikitzen laguntzen duena; inklusio soziala, bizi-kalitatea hobetzea eta pertsonen eskubideak benetan betetzea defendatzen duena; sektorearen egituraketan ekarpena egiten duena Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala indartsuagoa eta kohesionatuagoa izan dadin, betiere duen aniztasunari erreparatuta.

MISIOA

Gizarte kohesionatua, inklusiboa, solidarioa eta parte-hartzailea sustatzea, pertsona guztien eskubideak berdin errespetatuko dituen, zaurgarrienei arreta berezia eskaintzen diena, eta ongizate kolektiboaren eta eraldaketa sozialaren bidez, hiritar guztien konpromiso aktiboa sustatzea. Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala bateratua, sendoa eta aitortua izan dadin lan egiten du, eta hark gaitasuna izan dezan gizarteko eta instituzioetako eragileetan eragiteko eta haiekin elkarrizketak izateko.

BALIOAK



ELKARTASUNA

Babesgabeenen eskubideekiko erantzukizuna.



ERALDAKETA

Erantzukizuna eta konpromisoa gizartearen eraldaketarekiko, eskubideen aldarrikapenarekiko eta defentsarekiko, herritarren parte-hartzea eta erantzukizun aktiboa sustatuz.



GARDENTASUNA

Kudeaketan erantzukizunez jokatzeko, erabakiak hartzean eta informazioa maneiatzean gardenak izatea, eta erakunde kideek eta administrazioek informazioa eskuratzeko aukera izatea bermatzea.



LANKIDETZA

Hirugarren sektoreko erakundeen, administrazioaren eta herritarren artean eta horiekin batera, helburu komunak eta aurreikusitako misioa betetzen direla bermatzeko.



ANIZTASUNA

Sareen Sarearen baitako aniztasuna eta sektoreko aniztasuna aitortzea, eta barne-demokraziaren eta parte-hartzearen bidez beren ordezkagarritasuna bermatzea.



INDEPENDENTZIA

Pentsamenduan eta ideologian, independentzia instituzionala, politikoa eta ekonomikoa, gizarte-eragileekin duten elkarriketa eta eragina arriskuan ez jartzeko.



DEMOKRAZIA

Erantzukizun komuna eta parte-hartze ekitatiboa zein inklusiboa sustatzea misio eta ikuspegiaren norabidean zein erabakiak hartzean, kide guztiek errespetatutako diskurtso, jarrera eta akordio inklusiboak lortzeko.



AUTONOMIA

Autonomia eta sare bakoitzaren errealitatea errespetatzea, baita Sareen Sarearen diskurtsoa, jarrera eta aldarrikapena ere, interes komunen aldeko lanean.



ANTOLAKETA



Biltzar Nagusia

Sareen Sarearen Batzar Orokorra erakundearen erabakitze organo gorenena da. Gutxienez urtean behin elkartzen da, eta entitate bazkide guztiek osatzen dute.

Zuzendaritza Batzordea

Zuzendaritza taldea Batzar Orokorraren xedapen eta arauak jarraikiz elkartearen interesak zuzentzen, kudeatzen eta ordezkatzeko dituen gobernu-organoa da. Entitate bazkideek bakarrik izango dute gobernu-organon parte hartzeko aukera. Zuzendaritza Taldea entitate bazkide guztiek osatuko dute, eta bakoitza berak aukeratu duen pertsona fisiko batek ordezkatu du. Gutxienez hiru hilean behin egin beharko dute bilera, jardura sozialen garapenak ahalbidetzen badu. Orain hilean behin egiten dute bilera.

2025ean zeuden Lan Batzordeak:


- **Komunikazio eta Sentsibilizazio Sozialaren Batzordea:** Sareen Sarearen misioa lortzeko beharrezkoak diren barneko eta kanpoko komunikazio-ekintzak diseinatzea, gainbegiratzea eta ebaluatzea du helburu.
- **Haurren, Nerabeen eta Gazteen Eskubideen Batzordea:** Euskadiko haurren, nerabeen eta gazteen eskubideen bermean aurrera egiteko HSSko sareen eta erakundearen arteko ekintza kooperatiboko espazio bat

antolatzea du helburu orokor gisa, eta ekarpen esanguratsuak egiten ditu haurrei, nerabeei eta gazteei eragiten dieten politika publikoetan, haur, nerabe eta gazte guztien bizitzan benetako aldaketak sor ditzaten.

- **GJHen eta 2030 Agendaren Batzordeak** helburu bikoitza du: alde batetik, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren diskurtso partekatu bat bateratzea, definitzea eta zabaltzea GJHak eta 2030 Agenda Euskadin ezartzeari buruz, helburu horretan erakundeek, gizarte zibilak eta gizarte-eragileek elkarrekin aurrera egiteko. Eta, bestalde, aurrekoarekin bat egin arren, hirugarren sektoreak Gizarte Berrikuntzaren Foroan eta 2030 Agendan izango duen parte-hartzea antolatzea.
- **Sareen Sarean sexu-jazarpenaren, sexuan oinarritutako jazarpenaren eta sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren aurkako beste jokabide batzuen aurrean jarduteko Protokoloaren Jarraipen Batzordea.**
- **Itun Sozialaren Batzordea:** Itunaren Dekretua 2023an onartu ondoren, helburua da hedapenaren jarraipena egitea lurralde historikoetan eta jarduera-eremuetan, eta, aldi berean, informazioaren analisiak Euskadiko Elkarrizketa Zibileko Mahaira eramatea, EHSS Sustatzeko Estrategiaren 6. jarduketa baita.
- **Gizarteratze Batzordea.** Gizarteratzeko Planaren taldearen eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren 2022ko abenduko Legearen ondorioz, Zainketen aldeko Itun Zibila egin zen Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoaren esparruan. Orobat, Elkarrizketa Zibileko Mahaiko Inklusio Batzorde Mistoaren lanaren ondorioz ere egin zen.
- **Etxebizitza Batzordea.** 2025ean ekin zion bere ibilbideari, euskal administrazio publikoarekin esparru horretan lankidetzeta eta elkarrizketarako gune bat ezartzeko helburuarekin. Arreta berezia jarri zen 2025ean Alokabiderek eta Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailarekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren hedapenean; hitzarmen horren helburua da bereziki kalteberak diren kolektiboan etxebizitza-beharrak identifikatzea, eta Hirugarren Sektore Sozialeko (HSS) esperientzien edota jardunbide egokien mapaketa egitea etxebizitza-arazoak hobetzeko.
- **Osasun Batzordea.** 2025ean jaio zen, eremu horretan euskal administrazio publikoarekin lankidetzeta-gune bat ezartzeko, legezko oinarriarekin parte hartzeko dugarun legitimitatea nabarmentzeko, eta hori guztia elkarrizketa zibilaren zein gobernantza kolaboratiboaren esparruan egiteko.

Talde teknikoa

2025ean, talde teknikoa lau pertsonak osatu dute: koordinatzaile batek, koordinazio-teknikari batek, administrazio-teknikari batek eta komunikazioko eta kudeaketan laguntzeko teknikari batek.



ZER EGIN DUGUN 2025ean

2.1. EHSS INDARTZEA ETA DINAMIZATZEA

Zuzendaritza Batzordearen 9 bilerak eta 2 **Batzarrak**. Abenduko ezohiko batzarrean Zuzendaritza Batzordea berritu zen. Celia Gómezek (Lares Euskadi) hartu du presidentetzaren lekukoa Soraia Chaconen eskutik (Harresiak Apurtuz).



Aurten ere oso modu aktiboan funtzionatzen jarraitzen duten **Lan Batzordeak** honako hauek dira:

- **Sexuagatiko, sexu-jazarpena eta LGBTBI pertsonen aurkako jazarpena prebenitzeko Batzordea.** Batzorde hau behin bildu da.
- **Komunikaziorako eta Sentsibilizazio Sozialerako Batzordea:** Batzorde hori 4 aldiz bildu da
- **Haurren, Nerabeen eta Gazteen Eskubideen Batzordea.** Lan-batzorde hori 12 aldiz bildu da
- **Garapen Iraunkorreko Helburuen eta 2030 Agendaren Batzordea (A2030).** 7 aldiz bildu da
- **Itun Sozialaren Batzordea.** Batzorde hori 4 aldiz bildu da honako gai hauek aztertzeko:
 - **Gizarteratze Batzordea.** Batzorde hau behin bildu da.
 - **Osasun Batzordea.** Talde hau 2 aldiz bildu da.
 - **Etxebizitza Batzordea.** Talde hau 9 aldiz bildu da.

Batzarren arteko tartean, Batzorde Iraunkorra 12 aldiz bildu da formalki, honako gai hauekin:

EHSSko sareen eta erakundeen iraunkortasuna

Sareen Sarearen Plan Estrategikoarekin bat etorritik, 2025ean lan handia egin da honako arlo hauetan:



- **Esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzei buruzko 2025eko agindu berria.** Lege horrek zenbait aldaketa egiten ditu Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legean jasotako xedapenak betetzeko. Ongizateko sailburuordea eta Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko eta Gizarte Ekintzako zuzendaria Sareen Sarearekin bildu ziren.
- **Esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzei buruzko 2026ko agindua.** Eusko Jaurlaritzako Ongizateko sailburuak, Ongizateko sailburuordeak eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Sustapeneko eta Gizarte Ekintzako zuzendariak esku-hartze sozialaren eremuan Hirugarren Sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzen deialdi berrirako diseinatutako aldaketak jakinarazi zizkiguten. Deialdia 2026an hasi zen eta legegintzaldian pixkanaka hedatu da. Sareen Sareak dokumentu bat landu zuen barne-mailan, bere balorazio eta gogoetekin, eta Eusko Jaurlaritzari helarazi zion.

- **2025ean Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian (EEZM) elkarrizketa zibilean parte hartzen duten Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko sareen egitura sendotzeko eta funtzionamendurako laguntzak.** Eusko Jaurlaritzaren Hirugarren Sektorre Soziala Sustatzeko eta Gizarte Ekintzako Zuzendaritzarekin negoziatu eta adostu zituen Sareen Sareak EEZM osatzen duten hirugarren sektorre sozialeko sareentzako dirulaguntzak.
- 2025ean zehar, Ferrer i Guàrdia Fundazioarekin parte hartzen jarraitu genuen **administrazio publikoen eta Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorreko erakundeen arteko lankidetzarako formula gisa itun sozialaren eredia birformulatzeari buruzko hirugarren azterlanean.** Oraingo honetan, gizarte-itunaren lurralde-ezarpena, autonomia-erkidegoen arteko desberdintasunak eta erakundeen finantza-egonkortasunean eta zerbitzuen kalitatean duen eragina aztertzen ditu lanak.

EHSS sustatzeko estrategia

Sareen Sareak aurreko 2021-2024 Estrategiaren ebaluazioan nahiz Estrategia berriaren diseinuan ere hartu du parte.

Aurrekoaren ebaluazioari dagokionez, focus group batean parte hartu genuen, ikaskuntzak ateratzeko, lorpenak eta erronkak identifikatzeko eta etorkizuneko estrategiarako proposamenak diseinatzeko.

Etorkizuneko estrategia diseinatzeko, irailaren 19an tailer bat antolatu genuen bazkide diren sareekin, 2025ean Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokiak argitaratutako Liburu Zuriak jasotzen dituen erronkekin bat datozen sektorreko proiektu eragileak identifikatzeko. Jardunalditik txosten bat atera zen, eta Eusko Jaurlaritzako EHSSko Zuzendaritzari eman genion.

Jardunaldi parte-hartzailea

"**Elkartuta egiten duguna gara**" leloarekin, aurten, Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren indar kolektiboan jarri nahi izan du arreta, eta benetan kolaboratiboa den gobernantza batean horrek duen rolean. Martxoan, Sareen Sareak bere bazkide diren 18 sareak bildu zituen gai honen inguruko hausnarketa- eta elkarlan-prozesu bat egiteko; prozesu hori maitatzean, EHSSren Egunean, ekitaldi instituzionalean proiektatutako bideo batean jaso zen.

Parte-hartze prozesu horretan, EHSSko sareek hainbat gairen inguruan hausnartu ahal izan zuten; esaterako, gizarte-erakundeek pertsonak bizitza

osoan zaintzean eta haien eskubideak babestean lortzen duten legitimitateari buruz. Era berean, politika publikoen diseinuan Hirugarren Sektorre Sozialari buruz dagoen ezagutzaren balioa aldarrikatzen dute; sektorea eragile eraldatzaile gisa aitortzea; eta kalitatezko baldintzetan parte hartu ahal izateko baliabide egokiak izateko beharra.

Prozesu partekatu horrek sektore gisa garena adierazten du: aniztasun artikulatua, errealitatearen ezagutza sakona eta elkarrekin gizarte justuago, inklusiboago eta solidarioago bat eraikitzen jarraitzeko borondatea. Sektoreak euskal gizartearekin eta erakundeekin duen konpromisoa.



2.2. GOBERNANTZA ETA ERAGIN PROAKTIBOA

Sareen Sareak kontseilu, foro eta plataformei buruzko informazioa helaraztea eta trukatzeko errazten du, Sareen Sarea osatzen duten sareen bidez. Sareek administrazio publikoekin eta gizarte-eragileekin behar diren elkarrizketak dituzte.



Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaia

Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren Hirugarren Sektorre Soziala Sustatzeko eta Gizarte Ekintzako Zuzendaritza berriarekin, 2025ean, EEZMren funtzionamendua eta finantzaketa hobetzeko lan egin da.

EEZMren funtzionamenduan hobekuntzak sartzeari dagokionez, Hirugarren Sektorre Soziala Sustatzeko eta Gizarte Ekintzako Zuzendaritzarekin lan egin dugu hainbat bileratan eta bi lan-saiotan, EEZMren funtzionamenduari buruzko balorazio partekatua egiteko, gaur egungo solaskidetza-espazioak eta koordinazioaren eta kanpo-ordezkaritzaren beharrak bateratzeko.

EEZMren sareen finantzaketari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Hirugarren Sektorre Soziala Sustatzeko eta Gizarte Ekintzako Zuzendaritzarekin lan egin dugu Jaurlaritzarekiko elkarrizketa zibileko organoetan parte hartzen duten sareen finantzaketa zabaltzeko. Helburu horrekin:

- Elkarrizketa zibila osatzen duten elementuak/jarduerak bateratu dira, erakunde bakoitzaren ekarpenaren zati bat dimentsionatzea ahalbidetuko duten adierazle objektiboak zehazten saiatzeko azken helburuarekin.
- Hainbat irizpide adostu dira sareek elkarrizketa zibilean parte hartzeari buruz, sailen arteko eta maila anitzeko ikuspegitik.
- Fitxa bat diseinatu da sare bakoitzak banakako ariketa bat egin dezan; ariketa horretan, azken hiru urteetan sail arteko eta maila anitzeko ikuspegi batetik parte hartu duten edota parte hartu izan duten elkarrizketa zibileko guneak jaso behar dituzte. Baita haien haztapena ere.



Sareen Sareak honako hauetan parte hartu du:

- aurten egindako **EEZMren osoko bilkurak**.
- **EEZMren Batzorde Iraunkorra**.
- **Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategiaren (EHSSSE) Jarraipen Batzordea**
- **EHSSSE 2021-2024 ebaluatzeko focus group bat, Eusko Jaurlaritzak antolatua.**



⇒ **Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiaren (HSSEB) Jarraipen Batzordea**

Sareen Sareak bi ordezkari ditu Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiaren (HSSEB) Jarraipen Batzordean. Otsailaren 14ko bileran, 2024ko jarduera-memoria eta 2025eko programazioa aurkeztu ziren, ikerketa- eta sustapen-jarduera ugarirekin.

2025ean zehar, "**Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Sareen Diagnostikoa**" izeneko proiektuari jarraipena eman zion HSSEBk. Azterlanaren helburu nagusia EHSSko bigarren eta hirugarren mailako erakundeen nortasunari eta ezaugarriei buruzko ikuspegi diagnostikoa eskaintzea da. Horretarako, Behatokiak bi Focus Group antolatu zituen Sareen Sareko sareekin otsailaren 24an eta urriaren 13an.

Martxoaren 25ean, HSSEBren **2025eko Barometroko galdesortari** buruzko bilera bat egin zen sareekin online, galdesortaren aldaketa nagusiak aurkezteko eta sareen balorazioak jasotzeko.

➔ Bizitegi-bazterketa larriaren II. Estrategiaren Jarraipen Batzordea

2025ean, Sareen Sareak Bizitegi Bazterketa Larriaren II. Estrategiaren Jarraipen Batzordean parte hartu zuen. Enplegu, Etxebizitza, Osasun eta Ongizate Saileko ordezkariak eta Hirugarren Sektorre Sozialeko hiru ordezkariak osatzen dute batzordea.

➔ Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea hogeita hamabi kidek

- Ordezkaritza handieneko erakunde eta konfederazio sindikalen zortzi ordezkari.
- Confebask enpresa-konfederazioaren zortzi ordezkari.
- Hauetako zortzi ordezkari: merkataritza, industria eta nabigazioko ganberak; aurrezki-kutxak eta finantza-erakundeak; kooperatibak; lan-sozietate anonimoak; arrantza-erakundeak; nekazaritza-erakundeak; kontsumitzaileen erakundeak eta hirugarren sektore sozialeko erakundeak.
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen eginkizunekin lotutako gaitako zortzi aditu



Sareen Sareak EHSSren ordezkari-taldea egiten ditu Kontseiluan. Gizarte Garapenerako Batzordearen 6 bileratan, Memoria Sozioekonomikoaren Batzordearen 8 bileratan, 15 osoko bilkuratan, prestakuntza-jarduera batean eta jardunaldi batean parte hartu dugu 2025ean.

Gizarte Garapenerako Batzordean, Eusko Jaurlaritzak nahitaezko izaeraz bidalitako arau-garapenari buruzko irizpenak landu dira. Sareen Sareak bere proposamenak edo bazkide diren sareek bidalitakoak eztabaidatu ditu honako gai hauetan:

- Enplegurako pizgarriak arautzen dituen dekretu-proiektua.
- Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartzen duen dekretu-proiektua.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza ekonomikoa emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektua.
- Sexu-indarkeriaren biktimei laguntza ekonomikoa emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektua. Laguntza hori Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 41. artikuluan dago aurreikusita.
- Osoko Bilkura, Nerea Melgosa Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuaren agerraldiarekin, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko dekretu-proiektua aurkezteko.
- Osoko Bilkura, Ogasun eta Finantzetako sailburuaren agerraldiarekin, Eusko Jaurlaritzaren 2026ko Aurrekontuak aurkezteko.
- Norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektua.
- Seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzko dekretu-proiektua.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak enplegu-agentziekin bitartekaritza- eta enplegu-zerbitzua emateko akordio irekiak arautzen dituen dekretu-proiektua.



Memoria Sozioekonomikoaren Batzordeari dagokionez, 8 bileratara joan ginen. Horietan:

- MSE2024aren aurkezpena UPV/EHUko Udako Ikastaroetan: Mahai-inguruaren osaera eta hitzaldirako gaia eta hizlaria.
- UPV/EHUren Udako Ikastaroetan MSE 2024 aurkezteko lanak.
- Batzordearen bilkura, Gizarte Ekonomiari, Bizibaldintzei, Osasunari eta osasun-sistemari buruzko kapituluetan ekarpenak aurkezteko.
- MSE2024aren zirriborroa eztabaidatzea kapitulu hauei buruz: Zientzia, teknologia, berrikuntza eta digitalizazioa; Ingurumena, energia eta garraioa.
- Zirriborroa eztabaidatzea kapitulu hauei buruz: Egoera ekonomikoa eta kultura eta hizkuntza-aniztasuna.
- Kapitulu hauei buruzko eztabaida: kanpo-ingurunea, demografia, babes soziala eta hezkuntza.
- Kapitulu hauei buruzko eztabaida: produkzio-sektoreak, ekonomia, enplegua eta lan-harremanak, emakumeen eta gizonen berdintasuna.
- Uztailaren 9an, 2024ko Memoria Sozioekonomikoaren aurkezpena eztabaidatu eta onartu zen.

OGP Euskadi Gobernu Irekia

Sareen Sarea 2018tik parte hartzen du **OGP Euskadi Gobernu Irekiaren Foro Erregularrean, Foro Irekian, Konpromisoen Taldeetan** eta **iLAB, Euskadiko Parte-hartzeko Berrikuntza gunearen** talde eragilean (7 bilera eta/edo topaketa). Euskal administrazio publikoen hiru mailak ordezkaturata dauden erakundea.

Foro Erregularreko Gizarte Zibilaren batzordean sartuta gaude, eta bertan gizarte zibil antolatuaren eta antolatu gabearen ordezkariak daude.

2025ean, **OGP Euskadi 2021-2024 II. Ekintza Planaren ebaluazioan** parte hartu genuen, eta **OGP Euskadi 2025-2028 III. Ekintza Plana** egiteko prozesuari ekin genion.

Plan horren barruan, bi konpromiso-taldetan lan egin dugu:

4. konpromisoa
"Gobernu irekiaren kultura eta praktika sortzea haurtzaroan eta nerabezaroan", Gobernu Irekiaren printzipioak sustatzeko helburu nagusiarekin, bereziki haurren eta nerabeen parte-hartzea bultzatuz, Euskadiko Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legearen esparruan.

2. konpromisoa
"Bere etorkizuna diseinatzen aktiboki parte hartzen duten gazteak". Esparru metodologiko bat definitzea du helburu, euskal gazteek jarduera publiko-instituzionalean duten parte-hartzea sustatu eta ebaluatu ahal izateko.

Urriaren 7an, **Gobernu Ireki baterako Aliantzaren Goi Bilera Globala irekitzeko Osoko Bilkuran** izan ginen.


➔ Gizarte Berrikuntzaren Foroa eta 2030 Agenda

Urtarrilaren 23an, Sareen Sarea Asier Aranbarri Gizarte Berrikuntzako eta A2030 Lehendakartzako zuzendariarekin bildu zen, Sareen Sareak A2030 Foroan Gizarte Berrikuntzako 2025-2028 Plan berriarekin eta A2030 Planarekin izango duen parte-hartzearen norainokoa zehazteko.

Gure ordezkartzari dagozkion jarduerekin jarraitu dugu **Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Foroan** (10 bilera), bai Osoko Bilkuraren parte gisa, bai **Guneak – GJHen aldeko Euskal Aliantza–Euskadi Local 2030 Hub**-aren esparruan, **GJHen aldeko Euskal Aliantzaren talde eragilean eta Hiri Agendaren 2050 Lan Taldean**.

Foroko eztabaida, bilera eta akordioetan parte hartzea koordinazio-lan handia izan da sareekin eta erakundeekin, interakzio- eta ezagutza-arlo asko antolatu behar baitira ordezkatzutako gizarte-sektore gisa ezagutza eta diskurtso bateratua eskaintzeko.

GJHen aldeko Gobernantzako eta Euskal Aliantzako Lantaldeen esparruan, Gizarte Berrikuntzarako Planaren eta 2030 2025-2028 Agendaren jarraipen-saioan izan ginen, Nazio Batuetako idazkariorde nagusiarekin eta NBE-Habitatego zuzendari exekutibo Anacláudia Rossbachekin batera.



Saioan, Sareen Sarearen presidentetzak sareen sareak Foroarekin dituen lan-ildoen garapenaren aurkezpena egin zuen:

- **HSS eta Demokrazia proiektu partekatua:** Sareen Sarearen eta erakundeetako ordezkarien arteko elkarlaneko eta partekatutako gobernantzari buruzko barne-hausnarketarako guneak hasi ditugu. Zehazki, ekainean gonbidatu genituen Asier Aranbarri, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Berrikuntzako eta Agenda 2030ko zuzendaria, eta Maite Peña, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politiketako diputatua.
- **Sareen Sareak eta Euskalitek partekatutako proiektua, Hirugarren Sektore Sozialean GJHak eta 2030 Agenda garatzeko kudeaketa aurreratuari buruzkoa:** 2025ean Euskalitekin egindako lan-ildoari jarraipena eman diogu, Sareen Sarearen sareei eta sektoreko erakunde bultzatzaileei zuzendutako ikaskuntza-saioak garatuz. Ekitaldi honetako saioek GJHak estrategiarekin eta inpaktu-adierazleekin lotzea izan dute ardatz, baita GJHen kudeaketan jardunbide egokiak identifikatu eta partekatzea ere. Euskalitekin 2023an hasitako lankidetzaren emaitza gisa, azpimarratzekoa da otsailaren 24an **Sareen Sarea "Konpromisoa" aitortzarekin saritu zutela Euskadi Agenda 2030 Sarien lehen edizioan. Ekitaldia Lehendakaritzaren egoitzan egin zen, eta lehendakari Imanol Pradales izan zen buru. [ESTEKA](#)**



- **GJHen aldeko Euskal Aliantza eta Hub Euskadi A2030:** iaz Guneak-en talde eragilean "GJHen esparruan EHSSren proiektuen mapaketari" buruz hasitako lanetik abiatuta, barne-hausnarketa bat egiten ari gara hiru mailatako proiektuak identifikatzeko:

1. Sektore-ikuspegia duten proiektu partekatuak.
2. Sareen artean partekatutako proiektuak.
3. GJH eskalagarrien eta erreplikagarrien arloan lehen mailako erakundeekin partekatutako proiektuak



➔ **Gizarteratzeko Euskal Kontseilua**

2025. urtean, EHSSk gobernanta-eremu berri bat lortu zuen, Eusko Jaurlaritzarekin partekatua. Hori da **Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren kasua**. Gizarteratzeko Euskal Kontseilua arautzen duen urriaren 22ko 307/2024 Dekretuak Sareen Sareari esleitzen dio EAEko Hirugarren Sektorre Sozialaren ordezkartzan arituko diren 12 bokal izendatzeko ardura, 5. artikuluan jasotako eremu hauetan:



URTARRILAK 14
“pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako borroka, esku-hartze soziala, laneratze-enpresak eta gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak, ekonomia solidarioa, desgaitasun fisikoa eta intelektuala, buru-gaixotasuna, migratzaileak, pentsiodunak,

Sareen Sareak zuzenean betetzen du EAEko Hirugarren Sektorre Sozialaren ordezkartzako emakumeen bokaltza, eta, hala, Kontseiluaren osoko bilkurako lau saiotan parte hartu du, urtarrilaren 9an Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburu eta lehendakariorde Mikel Torres buru zela **Euskal Gizarteratze Kontseiluaren eratze-osoko bilkura** egin zenetik.

➔ **Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza. Osasun Saila**

2025ean zehar, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuordetzako **Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzarekin** lanean hasi da Sareen Sarea, 6 bileratan.

Bilera horien ondorioz, HSSk sail horrekin eta eremu zehatz horretan harreman- eta gobernanta kolaboratiborako historikoki egin duen eskaerari bide emateko aukera zabaldu da. Izan ere, Osasun Saila Gobernanta Soziosanitarioari buruzko dekretu-proiektu bat prestatzen ari da, eta bertan eremu soziosanitarioko batzorde edo komisio bat aurreikusten da. Batzorde horretan, beste eragile batzuen artean, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialak parte hartzeko gonbidapena jaso du Sareen Sarearen bidez.

➔ Alokabide. Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila


2024. urtearen amaieran, Sareen Sarea Denis Itxaso Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuarekin, Miguel de los Hoyos Etxebizitzako sailburuordearekin, Patricia Val Alokabideko zuzendari nagusiarekin eta Leire Alvarez de Eulate Alokabideko Gizarte Laguntzako zuzendariarekin bildu ginen lankidetzak aztertzeko.

2025eko ekainaren 2an, **lankidetzak-hitzarmen bat sinatu zuten Sareen Sareak, Etxebizitza Sailak eta Alokabidek**, egoera bereziki zaugarrian dauden kolektiboen etxebizitza-beharrak identifikatzeko, baita Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren esperientzien eta jardunbide egokien mapaketa bat egiteko ere, etxebizitzaren arloko arazoei erantzuna hobetzeko eta etxebizitzaren arloan antzemandako beharrak zein proposamen berritzaileak Eusko Jaurlaritzari helarazteko.



Horri maila anitzeko partaidetza-dinamiken ikuspegi konbinatu batekin helduko zaio:

- Taldekako saioak sareekin, beharrak eta jardunbide egokiak hautemateko.
- Etxebizitzako sailburuaren eta Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren erabiltzaileen arteko topaketak, etxebizitzaren inguruko beharretara eta arazoetara bideratuta.
- Erakundeei zuzendutako galdetegiak, esperientziak eta jardunbide egokiak hautemateko.



➔ Lehendakaritza

Urtarrilaren 14an, Sareen Sarea lehendakariarekin eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburu Nerea Melgosarekin bildu zen Lehendakaritzan. Bilera horrek erakunde-harremanen hasiera markatu zuen, aurreko legegintzaldietan Iñigo Urkullu lehendakariarekin izan ditugunei jarraipena emateko.



EUSKO JAURLARITZAREKIN POLITIKAN ERAGINA DUTEN GAIEN ZERRENDA

- 2025. urtean, bilerak eta harremanak izan ditugu Eusko Jaurlaritzarekin, proposamenak aurkezteko, eztabaidatzeko eta honako gai hauetan politikoki eragiteko:
 - Elkarlaneko gobernantza.
 - Esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzei buruzko 2025eko agindua.
 - Elkarrizketa Zibila indartzeko eta bultzatzeko laguntzen deialdia 2025erako.
 - Esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzei buruzko 2026ko agindua.
 - EHSS sustatzeko estrategia: EHSSSE 2021-2024ren ebaluazioa, EHSSE 2025- 2026 esparruko proiektuak.
 - EAEko Familiei, Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko Erakunde arteko V. Plana.
 - Haurren eta Nerabeen Euskal Legea.
 - Edari alkoholduen kontsumoa eta horiek adingabeengan dituzten ondorioak prebenitzeko lege-proiektua.
 - Berrikuntza Sozialaren eta A2030en 2025-2028 Plana.
 - Sumarrek sustatutako lege-proposamena, Sektore Publikoko Kontratuen Legea (SPKL) aldatzeko.
 - SPKL berrikusteko proposamena, Gizarte Ekonomiaren Legeari egindako zuzenketa baten bidez.
 - Bizitegi-bazterketa larriaren II. Estrategia.
 - Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Erregelamendua arautzen duen dekretu-proiektua.
 - Enpleguaren Euskal Estrategia 2030.
 - Enplegurako pizgarriak arautzen dituen dekretu-proiektua.
 - Esparru soziosanitarioko HSSko erakundeentzako dirulaguntzei buruzko dekretua.
 - Gobernantza soziosanitariorako proiektuaren dekretua.

2.3. HARREMANAK ETA ALIANTZAK

Hainbat mugarri esanguratsu izan dira Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren posizionamenduari, sustapenari eta 2025ean gizarteari irekitzeari dagokienez.

➔ Hirugarren sektorearen diagnostikoak


Sareen Sareak **Hirugarren Sektoreko Plataformako (HSP) Lurralde Koordinazioko Batzordean** parte hartu du, eta Sareen Sareak beste plataforma batzuekin batera parte hartu du aurten ere.

Ekaineko bilera **Asturiasko HSPk** ekainaren 11n eta 12an antolatutako **mintegiarekin** batera egin zen. Sareen Sarea gonbidatu gisa aritu zen Euskadiko Hirugarren Sektoreari buruzko Legea onartzeko prozesuei buruzko mahai-inguru batean, baita Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren garapenari eta egungo egoerari buruzkoan ere. Mahai-ingurua Gaztela-Mantxako Hirugarren Sektorearen Mahaiko, Andaluziako Hirugarren Sektorearen Mahaiko, Extremadurako Hirugarren Sektorearen Plataformako eta gure plataformako ordezkariak osatu zuten.



➔ Kataluniako Hirugarren Sektorearen Taula

Sareen Sareak bilera egin zuen Taulako Aliantzen eta Proiekzioaren arduradun teknikoarekin, **inpaktuaren neurketari eta kudeaketari** buruzko ezagutza eta esperientziak trukatzeko. Izan ere, Taulan gai hori lantzen ari dira sakonki, eta interes handikotzat jotzen dute gure esperientzia eta garatzen ditugun ekimenak hobeto ezagutzea.



⇒ Alderdi politikoak

Sareen Sareko Itunaren Batzordeak harreman- eta bilera-sorta bat egin zuen hainbat alderdi politikorekin, **Sumarrek Sektore Publikoko Kontratuen Legea (SPKL) aldatzeko sustatutako lege-proposamenak** Hirugarren Sektore Sozial osoarentzat duen garrantzia alderdi guztiei helarazteko asmoz. Zehazki:

- Bilera, martxoaren 14an, EAJrekin, Sabin Etxean. Bilera horretan Idoia Sagastizabal Kongresuko diputatuak, Nerea Ahedo senatariak eta Ana Esther Furundarena EBBko burukideak hartu zuten parte. Sareen Saretik Pablo Moratalla, Begoña Besada eta Txema Franco bertaratu ziren.
- Bilera PSerekin martxoaren 21ean, Teresa Laespada Enpleguko, Gizarte Kohesioko eta Berdintasuneko foru-diputatuak eta Óscar Seco BFAko Gizarteratzeko zuzendari nagusiak ordezkaturak.



2.4. EHSSREN POSIZIONAMENDU SOZIALA


⇒ 05/12-EHSSren eguna eta kanpaina erantsia

2025ean, **05/12 EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EGUNA** ospatzearekin batera, maiatzaren 6an, Gasteizko Artium museoan bildu ginen, Lehendakariaren, Eusko Jaurlaritzaren, Eusko Legebiltzarraren, aldundien eta udalen ordezkarien eta Euskadi osoko gizarte-erakundeen partaidetzarekin.



- Elkartuta egiten duguna gara" leloarekin, aurten, Sareen Sareak EHSSren indar kolektiboan jarri nahi izan du arreta, eta benetan kolaboratiboa den gobernantza batean horrek duen rolean.



- Ekitaldian, Sareen Sareko presidente Soraia Chaconek erakundeen eta Hirugarren Sektore Sozialaren arteko egiturazko lankidetzak indartzeko beharra azpimarratu zuen, bereziki gobernantza irekiagoa, parte-hartzaileagoa eta erantzukideagoa eskatuz. Era berean, gogorarazi zuen sektorearen jasangarritasuna bermatzeko finantzaketa-esparru egonkorra, nahikoa eta aurreikusteko modukoa bermatu behar dela.
- Ekitaldian **lehendakariak** parte hartu zuen, eta hirugarren sektoreak lurraldearen gizarte-kohesioan duen funtsezko eginkizuna nabarmendu zuen, inor atzean ez uzteko beharra azpimarratu zuen. Euskal ereduari balioa eman zion, pertsonak ardatz dituzten erakundeen eta herritar konprometituen arteko lankidetzan oinarrituta.
- Jardunaldiko unerik hunkigarrienetako bat Sareen Saria 2025 sariaren banaketa izan zen. Aurten, [Concha Clavero](#)  [Molinaren](#) ibilbidea aitortu da; izan ere, erreferentziazko figura izan da politika publiko inklusiboak sustatzen eta komunitate-ekintzatik zein ikuspegi feministatik herritarren parte-hartzerako guneak eraikitzen. Sareen Sareak eta lehendakariak Concha Claveroren ondarea goraiatu zuten, bereziki krisi industrialak, langabeziak eta droga-mendekotasunak markatutako garaietan egindako ekarpena nabarmenduz.



➔ Beste ekitaldi eta jardunaldi batzuk

Dagoeneko azaldutakoez gain, hona hemen Sareen Sareak 2025ean antolatutako edo parte hartutako ekitaldien zerrenda:

- Urtarrilaren 22an, Sareen Sareko presidentea **Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitza Foroaren** hasierako Osoko Bilkuran izan zen. Eusko Jaurlaritzaren aholkularitza- eta partaidetza-erakundea da; gobernantza aurreratuagoa eta erlazionalagoa sustatuko duena.
- Urtarrilaren 30ean, Sareen Sarearen presidentetzak sareko lanari buruzko mahaian parte hartu zuen, Argia Fundazioak antolatutako jardunaldi honetan: **"XV. Truke eta Sentsibilizazio Jardunaldiak. Aldaketa garaiak eta aukera berriak osasun mentalean"**.
- **"Gizarte Zibilaren II. Topaketa. Etorkizun koherente bat. Garapen Iraunkorrerako Aliantzak"**, UN Etxeak antolatua eta Euskadiko 2030 Agendak bultzatuta, eragile anitzeko lankidetzaren eta politiken koherentziaren bidez (2025-02-04). Sareen Sareak Elkarrizketa Mahai honetan hartu zuen parte: Ikuspegi sektorialak.



- Martxoaren 26an, Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokiak antolatuta, **Arreta-eredu komunitarioari buruzko Benchmarking mintegian** izan ginen. EHSSSEren 7. jardueraren esparruaren baitan, helburua da bultzada handiagoa ematea eta zerbitzuak eta prestazioak arreta-eredu komunitarioa hobeto egokitzea.
- **"Psikologia Sariak"** (2025-05-06). Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialak Sareen Sarea gonbidatu zuen sarietako epaimahai gisa parte hartzera.

- Maiatzaren 28an, Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokiak EHSSren 2024ko Liburu Zuria aurkeztu zuen Donostiako Kursaaletan egindako jardunaldian.



- **"EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko VII. Azterlana 2024"** aurkezteko jardunaldia (2025-05-26).
- **"EHSSren 2024ko Liburu Zuria"** aurkezteko HSSEBren jardunaldia (2025-05-28).
- **EGABek antolatutako jardunaldia: "Etxebizitzaren erronka: konponbideak eraikitzen ikuspegi multidimensioaletik"** (2025-06-02).



- **REASen jardunaldia: "Komunitatean bizi. Etxebizitza kooperatibo inklusiboa bultzatuz"** (2025-06-05).



- Ekainaren 16an, Sareen Sareko presidentek **Etxebizitzaren Euskal Legearen X. urteurrena ospatzeko bideoan** parte hartu zuen, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak gonbidatuta.
- **"Euskadiko Inklusiorako V. Jardunaldia"** (2025-06-11). Euskadiko inklusioari buruzko urteko jardunaldia, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak antolatua, inklusioaren politika eta praktika osatzen duten alderdiei buruz hausnartzeko.
- **"Gobernu-ekitaldiaren balantzea"** (2025-06-12). Lehendakaritzan egindako topaketa, lehendakaria bertan zela, Jaurlaritzaren lehen urtearen balantzea egiteko, Euskadik aurrean dituen erronkak partekatzeko eta anbizioz eta konpromisoz aurrera egiten jarraitzeko.
- **"Nazio Batuetako idazkariorde nagusi eta NBE-Habitatego zuzendari exekutibo Anacláudia Rossbachi harrera"** (2025-07-07).
- Uztailaren 17an, Sareen Sareak, Astialdi Sarearekin batera, Bizkaia Garako ekitaldi-aretoan parte hartuko du, **Fundesplairekin egindako topaketa** batean, Sareen Sarea aurkezteko, erakundeko arduradunei egiten ari zaizkien prestakuntzaren esparruan.
- **"Topaketa-zikloa: Politika publikoen ebaluazioari buruzko elkarrizketak"** Besaldi-Enplegu- eta inklusio-politika publikoen ebaluazio-organoa (2025-09-18/2025-11-06).





- **Ikasturtearen inaugurazio ekitaldia Deustuko Unibertsitatean** (2025-09-24).
- **"Aldaketa soziala bultzatuz: Euskadi inklusiborako gakoak"** jardunaldia, Caixabankek antolatua (2025-09-26).
- BBKren **"Boluntariotzaren Joera Globalei buruzko Txostenaren"** aurkezpena (2025-09-26).
- Irailaren 25ean, **Deustuko Unibertsitateak** Bilbon egin zuen ikastaroaren inaugurazioan izan zen Sareen Sarea.
- Eusko Jaurlaritzak antolatutako **"Belaunaldien arteko elkartasuna bultzatzeko" tailerrak** (2025-10-9 eta 14).
- Urriaren 17an, Sareen Sareko koordinatzaileak Euskadiko 2030erako Haur Bermerako Estrategiaren inguruko mahaia moderatu zuen, Pobrezia Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna zela eta, EAPNk antolatutako **"Haurrak pobreziatik eta gizarte-bazterketatik babestea Euskadin"** jardunaldian.




- **"Haurtzaroa eta nerabezaroa aro digitalean"** gaiari buruzko jardunaldia Eusko Legebiltzarrean (2025-11-19).
- **"Tentsionatutako Eremuen Nazioarteko Kongresua"**. Etxebizitza Saila (2025-11-19). "Bizitegi-bazterketa eta gizarte-ekintza tentsionatutako eremuetan" mahai-inguruan parte hartu genuen, Sareen Sareko Etxebizitza Batzordeko Rubén Méndez (REAS) bozeramailearekin.
- Ferrer i Guardiola Fundazioak antolatutako **"Itun soziala eraldatzea: gizarte-ekintzako hirugarren sektorearen erronkak eta etorkizuna"** mahai-inguruan parte hartu genuen (2025-11-20). Sareen Sareak parte hartu zuen bertan, eta Sareen Sareko Itunaren Batzordeko Begoña Besadak (Hirekin) hitza hartu zuen Euskadiko itunaren esperientzia azaltzeko.
- Sareen Sarearen **"GJHak HSSn"** jardunaldia, Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astearren esparruan (2025-10-20).




- Urriaren 23an, Sareen Sareko koordinatzaileak ongiatorri instituzionalean parte hartu zuen, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Astialdi Sareko presidentetzarekin batera, Donostian egin zen **"Astialdi Sarea Biltzarra"** ekitaldian.



- Urriaren 24an, Sareen Sareko koordinatzailea bideokonferentzia bidez bildu zen Tiaseko Udalarekin (Lanzarote) eta HSSko ordezkariekin, Lanzaroten erakunde-sare bat antolatzen ari direlako eta gure esperientzia ezagutu nahi dutelako.
- Azaroaren 20an, Begoña Besada (Hirekin) Sareen Sareko Itunaren Batzordeko kideak **Ferrer i Guardiola Fundazioak antolatutako Itun soziala eraldatzea: gizarte-ekintzako hirugarren sektorearen erronkak eta etorkizuna** mahai-inguruan parte hartu zuen, Euskadik itunarekin izandako esperientzia kontatzeko. Sareen Sareak Fundazioaren azterlanetan parte hartu izanaren ondorioz, 2025ean ESHSeko erakundeen finantzaketari buruzko azterlanaren hirugarren edizioa egin da, eta itun sozialaren eredua birformulatzea izango du ardatz, administrazio publikoen eta ESHSeko erakundeen arteko lankidetzaren formula gisa.
- EAPN Asturiasek, printzerriko gobernuarekin lankidetzan, **hirugarren sektore sozialeko erakundeetan GJHak ezartzeari** buruz antolatutako jardunaldia (2025-11-24). Sareen Sareko koordinatzaileak inaugurazio-hitzaldia egin zuen, eta ondorengo esperientzia-mahai batean parte hartu zuen, Arabako Lanagro gizarteratze-enpresa (Gizatea) aurkeztuz.
- Bizkaia Gara-ren "**Herritarrak aktibatu eta Agenda Publikoan Eragin**" jardunaldian parte hartu genuen (2025-12-17). Sareen Sareak mahai batean parte hartu genuen jardunaldiaren barruan.
- Bestalde, irailaren 11n, Sareen Sareko koordinazio-taldea **CaixaBankeko** ordezkariekin bildu zen, harremanak estutzeko eta irailean KPMGrekin batera Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari zuzenduta antolatutako "Aldaketa soziala bultzatuz: Euskadi inklusiborako gakoak" topaketan parte hartzera gonbidatzeko.
- 2025ean zehar, Sareen Sareak **Arizmendiarreta Fundazioaren epaimahaian eta sari-banaketetan parte hartu genuen Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.**





KOMUNIKAZIOA

SAREEN SAREA

Lankidetzeta-hitzarmena Herri Irratiarekin.

2026an, Herri Irratiaren "Es posible" programan parte hartzen jarraitu genuen, eta Sareen Sareari atxikitako sare eta erakunde gehienek parte hartu dute. Irratsaio horietan, erakundeek kontatu ahal izan dituzte bizi duten errealitatea, egiten duten lana, proiektu berriak, ekitaldi puntualak eta abar.

Sareen Sareak 2025ean SARE BERRI izeneko elkartearen hileko buletin elektronikoa aldizka argitaratzen jarraitu du. Buletina 2019ko apirilean jarri zen zirkulazioan. Buletin berria tresna eraginkorra da eta urtetik urtera harpidetza kopurua handituz joan da. Gaur egun 679 harpidedun ditu.

Azkenik, 2025 osoan sare sozialetan izandako eraginari buruzko prentsa-aldizkaria eta txostena erantsi ditugu.

CLIPPING SAREEN SAREA 2025





DATA	KOMUNIKABIDEA	ALBISTEA
01 / 14	HERRI IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • https://radiopopular.com/podcast/hirukide-fiscalidad-transporte-publico-y-vivienda-retos-en-2025
01 / 28	HERRI IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • https://radiopopular.com/podcast/la-asociacion-gaude-apoya-a-personas-con-discapacidad-intelectual-y-sus-familias
02 / 11	HERRI IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • https://radiopopular.com/podcast/umeekin-destaca-la-importancia-del-apoyo-psicologico-en-el-cancer-infantil
02 / 25	HERRI IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • https://radiopopular.com/podcast/programa-lanaukera-ehlabe
03 / 11	HERRI IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • https://radiopopular.com/podcast/equipo-de-fubol-neskak-ere-futbolean-gaude
03 / 25	HERRI IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • https://radiopopular.com/podcast/apnabi-busca-volver-a-superar-las-1000-personas-en-autismoa-martxan-de-leioa-el-6-de-abril
04 / 08	HERRI IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • https://radiopopular.com/podcast/innovacion-y-accesibilidad-en-aspac-bizkaia-la-impression-3d-al-servicio-de-la-autonomia
05 / 08	HERRI IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • https://radiopopular.com/podcast/reas-euskadi-ante-el-no-me-da-la-vida-politica-laboral-feminista
05 / 12	HERRI IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • Entrevista en "Es Posible" de Radio Popular con motivo del 1205
05 / 12	EL CORREO	<ul style="list-style-type: none"> • https://sareensarea.eus/noticias/somos-lo-que-hacemos-unidas/
05 / 13	HERRI IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • https://radiopopular.com/podcast/euskadi-celebra-el-dia-del-tercer-sector-social-con-un-llamamiento-a-la-gobernanza-colaborativa



DATA	KOMUNIKABIDEA	ALBISTEA
05 / 14	BIZKAIA IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • https://www.ivoox.com/podcast-sareen-sarea-125milaesker_sq_f1908257_1.html
05 / 27	HERRI IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • https://radiopopular.com/podcast/aspac-bizkaia-modelo-de-atencion-centrado-en-las-necesidades-y-deseos-de-la-persona
06 / 06	HERRI IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • https://radiopopular.com/podcast/euskal-gorak-la-lengua-de-signos-mas-visible-que-nunca-en-euskadi
06 / 17	HERRI IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • https://radiopopular.com/podcast/futubide-fundazioa-presta-medidas-de-apoyo-para-el-ejercicio-de-la-capacidad-juridica-2
06 / 25	HERRI IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • https://radiopopular.com/podcast/bbk-saioa-gorabide-la-importancia-de-contar-con-la-informacion-adecuada
11 / 21	HERRI IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • https://radiopopular.com/podcast/voluntariado-en-gorabide-para-fomentar-la-participacion-social-a-traves-del-ocio
11 / 26	HERRI IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • https://radiopopular.com/podcast/el-tercer-sector-social-crece-en-euskadi
12 / 15	HERRI IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> • https://radiopopular.com/podcast/esta-navidad-dale-la-vuelta-a-tu-consumo-en-el-mercado-social-de-euskadi-de-reas-euskadi







SARE SOZIALEN ETA WEBGUNEAREN ERAGINAREN TXOSTENA



2025


  914 jarraitzaile
 27.100 bistaratze/irismen
 672 elkarreragin





  1569 jarraitzaile


  470 jarraitzaile
 25.800 bistaratze
 6.234 irismen
 564 elkarreragin

  731 jarraitzaile
 41.489 inpresio
 1.190 elkarreragin

 *(Perfil desde jun/jul 2025)*
 33 jarraitzaile

  101 harpidedun
 10 bideo 2025ean
 1.641 bistaratze/ikustaldi
 18.065 inpresio

  18 albiste argitaratuta
 3.215 erabiltzaile
 7.421 bisita
Guztira: 10.997 bisita y 13.320 erabiltzaile



2025EKO SARRERAK



Bazkide eta afiliatuen kuotak	39.843,46
Dirulaguntza, dohaintzak eta legatuak.....	269.800,00
Jardueraren bestelako sarrerak	3.600,00

SARRERAK, GUZTIRA 2025: 313.243,46

2025EKO GASTUAK

Alokairuak eta kanonak	27.704,02
Konponketak eta mantentze-lanak	5.355,96
Profesionalen zerbitzuak	39.671,74
Garraio-gastuak	640,65
Aseguru-primak	326,84
Banku-zerbitzuak eta antzekoak.....	721,60
Publizitatea, propaganda eta HH.PP.....	24.147,81
Hornidurak.....	1.722,40
Bestelako zerbitzuak	6.552,55
Bestelako zergak.....	3,86
Langile-gastuak.....	182.017,51
Jardueragatiko gastuak eta bestelakoak	52,01
Finantza-gastuak.....	190,02
Ibilgetu materialaren amortizazioa	4.857,00

GASTUAK, GUZTIRA 2025:293.963,97



20

memoria

25



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi